EBAZPENA, 2019ko OTSAILAREN 15ekoa, HEZKUNTZA SAILEKO LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIARENA, IKASTETXE PUBLIKOETAN ORDEZKAPENAK EGITEKO ORDEZKOGAIEN APARTEKO ZERRENDAK IREKITZEN DITUENA

Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetan dauden ordezkapenen premiei aurre egiteko, unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetan ordezkapenak egiteko ordezkogaien aparteko zerrendak irekitzen dira.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2012ko abuztuaren 27ko aginduak 14. artikuluan eta hurrengoetan xedatutako baldintzen arabera irekitzen dira zerrenda horiek.

Horren arabera, eta apirilaren 11ko 79/2017 dekretuak, Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituenak, 10. artikuluan xedatutakoaren arabera,

EBAZTEN DUT

Lehena.- Ordezkogaien aparteko zerrendak irekitzea hiru lurralde historikoetako ikastetxe publikoetan, ebazpen honen I. eranskinean adierazten diren espezialitateetan.

Bigarrena.- Deialdi honen parte-hartzea ebazpen honen II. eranskinean adierazten diren baldintzen arabera izango da.

ERREKURTSOAK

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 legeak, 121. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera, gorako errekurtsoa jarri ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari ebazpen honen kontra, hilabeteko epean, argitara eman eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

JON AGIRRE HUERGA
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA

Vitoria-Gasteizen, 2019ko otsailaren 15ean

I. ERANSKINA

MAILA: LEHEN HEZKUNTZA		
ESPEZIALITATEAK	**KODE ETA IKASGAIEN ZERRENDAK**	**HEZKUNTZAKO HIZKUNTZA ESKAKIZUNA**
Haur Hezkuntza Lehen Hezkuntza Euskara Hizkuntza indargarria	0950 0951 0952 1080	HE 2 HE 2 HE 2 HE 2
MAILA: HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZAK		
ESPEZIALITATEAK	**KODE ETA IKASGAIEN ZERRENDAK**	**HEZKUNTZAKO HIZKUNTZA ESKAKIZUNA**
HEO Errusiera HEO Gaztelania	0754 0755	HE 2, HE 1 HE 2, HE 1
MAILA: MUSIKAKO IRAKASKUNTZAK		
ESPEZIALITATEAK	**KODE ETA IKASGAIEN ZERRENDAK**	**HEZKUNTZAKO HIZKUNTZA ESKAKIZUNA**
Biolina Gitarra Biola Saxofoia Eskusoinua Korua	0802 0805 0807 0813 0829 0883	HE 2, HE 1 HE 2, HE 1 HE 2, HE 1 HE 2, HE 1 HE 2, HE 1 HE 2, HE 1

II. ERANSKINA

BALDINTZAK

1.- ESKAKIZUN OROKORRAK: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2012ko abuztuaren 27ko aginduaren (2012-09-11ko EHAA) 7. artikuluan eta geroagoko aldaketetan xedatutakoak.

Irakasleen hizkuntza eskakizunari buruzko baldintzari dagokionez, eta zerrendaren arabera, irakasleen HE2 (C1 maila edo handiagoa) edo irakasleen HE1 (B2 maila edo handiagoa) egiaztatu beharko da. Maila bakoitzarekin bat datozen ziurtagiriak edo kreditatzeak kontsulta daitezke Hezkuntza Saileko web orrian: Langileak / Ordezkapenetarako izangaiak – Irakasleak / Aparteko zerrendak irekitzea / On-line eskaera / "Eskabidea on-line betetzeko ohar inportanteak" estekan sakatuz.

2.- ESKAKIZUN ESPEZIFIKOAK: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2012ko abuztuaren 27ko aginduaren (2012-09-11ko EHAA) 8. artikuluan eta geroagoko aldaketetan xedatutakoak:

2.1.- Titulazio Akademikoa:

Espezialitate bakoitzerako eskatutako titulazioa egiaztatu beharko da, 2012ko abuztuaren 27ko aginduak Espezialitate eta titulazioen taulari buruzko III. Eranskinean xedatutakoaren arabera, zehazten diren ondorioekin. Taula hori kontsultatzeko (gaurkotuta, egindako aldaketak barne) http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/langile_d_cand_sust_normativa/eu_def/adjuntos/III_Eranskina_04_2017_e.pdf jo beharko da.

2.2.- Prestakuntza Pedagogiko eta Didaktikoa:

Prestakuntza pedagogiko eta didaktikoa izatea egiaztatu beharko da Hizkuntzen Irakaskuntzetako espezialitateetan.

Prestakuntza pedagogiko eta didaktikoaren baldintza (abenduaren 27ko ECI/3858/2007 Agindua) egiaztatuko da gaitasun pedagogikoaren ziurtagiriaren, espezializazio didaktikoaren tituluaren edo prestakuntza pedagogikoa eta didaktikoa egiaztatzen dituen Masterraren titulu ofizialaren bidez.

2008/2009ko ikasturteak bukatu aurretik bi ikasturte osotan, edo 12 hilabete jarraian edo etenekin, behar bezala baimendutako irakaskuntza arautuko ikastetxe publiko edo pribatuetan, haien irakaskuntza-espezialitateak azaroaren 8ko 1834/2008 errege dekretuan arautzen diren maila eta irakaskuntzetan, irakatsi dutela egiaztatzen dutenei, irakaskuntza hori aipatutako prestakuntza pedagogiko eta didaktikoaren baliokide gisa aitortuko zaie.

Halaber, Maisu edo Maistraren, Oinarrizko Hezkuntza Orokorraren irakaslearen, Lehen Hezkuntzako Maisu edo Maistraren, Pedagogia eta Psikopegagogiako lizentziaturaren tituluak, edo prestakuntza pedagogikoa eta didaktikoa jasotzen duen lizentziatura edo titulazio baliokidea, dituztenei baldintza hori izatetik salbuetsiko zaie, titulu horiek 2009ko urriaren 1a baino lehenago lortu badituzte.

3.- ADIN TXIKIKO BABESA:

Adin Txikikoa Juridikoki Babesteari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 lege organikoko 13 artikuluaren 5 atalean xedatutakoaren arabera (haur eta nerabeak babesteko sistema aldatzen duen uztailaren 28ko 26/2015 legearen bidez sartua), sexu-askatasunaren eta osotasunaren kontrako delituren batengatik -sexu-erasoa eta abusua, sexu-jazarpena, exhibizionismoa eta sexu-probokazioa, prostituzioa eta sexu-esplotazioa, adingabeen galaraztea eta gizakien trafikoa sartzen dira delitu horietan-, sententzia irmoaren bidez zigorrik jaso ez izana izango da adin txikikoekin ohiko kontaktua izatea dakarten profesioetan aritzeko baldintza. Horretarako, sexu-gaizkileen Erregistro Zentralaren ziurtagiri negatibo bat aurkeztu beharko da, baldintza hori betetzen dela egiaztatzeko, edo on-line eskabidean erantzukizunpeko adierazpena bete beharko da, Hezkuntza Saila Sexu-delitugileen Erregistro Zentralean datuak kontsultatu ahal izateko esanbidezko baimena ematen diona; horretarako, “Adingabearen babesa” laukia markatu beharko da.

Ordezkogaiek, lanpostu bat betetzeko deitzen zaienean, ziurtagiri hori aurkeztu beharko dute edo Sailak kontsulta egingo du (on-line eskaeran adierazpen arduratsua, datuak Sexu Delitu Egileen Erregistro Zentralean kontsultatu ahal izateko berariazko baimena sartuko duena, bete badu). Adierazitako delituengatik zigorra jaso badute edo aipatutako ziurtagiria aurkeztu ez badute (kontsultatzeko baimena eman ezean), prozedura honetan parte hartzeagatik izan zitzaketen eskubide guztiak galduko dituzte.

ESKAERAK BETETZEA ETA DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA (ESKAKIZUNAK)

1.- EPEA:

2019ko otsailaren 18tik 22ra arte, biak barne.

2.- ESKAERA BETETZEA:

Eskaerak eskura egongo dira:

- www.irakasle.eus orrian / Irakaslegunea / “Administrazio-izapideak” eta “Zerrendak irekitzea” / “Zerrenda-Irekitze Berriak” – “Eskaera-aldi irekia dutenak”.
- www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/hezkuntza-saila/ orrian / Lan-Arloak / Langileak / Hornikuntza-Irakasleak / Ordezkapenetarako izangaiak / Aparteko zerrendak irekitzea / Zerrendak irekitzea / 2019-02-15eko deialdia eta www.irakasle.eus estekan klik eginez.

Eskaera betetzeko (www.irakasle.eus helbidean), erabiltzailea (NANa) eta pasa-hitza sartu beharko dira. Pasa-hitzarik ez baduzu edo gogoratzen ez baduzu, aipatutako www.irakasle.eus orriaren bidez lortu ahal izango duzu, “pasa-hitza lortzea (edo berreskuratzea)” estekan.

Ekipo informatikorik eta lotutako eskanerrik ez dituzten pertsonek izango dute aukera Eusko Jaurlaritzako KZGunea zentro publikoetan eskabidea betetzeko eta dokumentazioa on-line atxikitzeko (KZGunea zentroen zerrenda eta berorien kokapena ondorengo helbide elektronikoan dago eskura: www.kzgunea.eus).

On-line eskabidea erabat bete ondoren, itxi beharko da eta, horretarako, “Eskabidea amaitu eta agiria sortu“ atala markatu beharko da, ondo balidatuta eta erregistratuta gera dadin. Eskabidea ixten ez bada, “Eskabidea amaitu eta agiria sortu“ atala markatuz, eskabidea ez dela aurkeztu ulertuko da.

3.- BALDINTZAK EGIAZTATZEKO DOKUMENTAZIOA ENTREGATZEA:

Adierazitako epean zerrendara/zerrendetara sartzeko exijitutako baldintzak egiaztatzeko agiriak besterik ez da/dira entregatu beharko. Ordezkogaiei buruzko aginduaren I. eranskinean adierazitako merezimenduak geroago aurkeztu beharko dira, deialdi honetan onartutako eta kanpoan utzitako pertsonei buruzko behin betiko ebazpena argitara eman ondoren aurrera eramango den urteko lehen birbarematze-prozesuan.

3.1.- Titulazio akademikoa/tituluaren tasak ordaindu izanaren ziurtagiria, prestakuntza pedagogikoa eta didaktikoa (HEOrako) eta hizkuntzen egiaztapena **formatu elektronikoan** eta ondorengo moduan aurkeztuko dira:

Eskaera on-line betetzeko unean, "Prestakuntza akademikoa - titulua" atalean, gaineratuko da. Aurkezten den titulua/ziurtagiria zein den adieraziko da eta, ondoren, "Titulua atxikitu" eremuaren bidez, eskaneatutako dokumentua, pdf formatuan, gehituko da (gaineratu beharreko fitxategi bakoitzaren tamaina ezin da 3 MBtik gorakoa izan).

Eskatutako hizkuntza eskakizuna egiaztatzeari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko EGA eta HEO eta HABE ziurtagiriak ez dira entregatu beharko. Prozesu honetan parte hartzeak interesatuak, datu horiek Euskarako Titulu eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan kontsultatzeko, Hezkuntza Sailari baimena ematea dakar.

Ekipo informatikorik eta lotutako eskanerrik ez dituzten pertsonek izango dute aukera Eusko Jaurlaritzako KZGunea zentro publikoetan eskabidea betetzeko eta dokumentazioa on-line atxikitzeko (KZGunea zentro publikoen zerrenda eta berorien kokapena ondorengo helbide elektronikoan dago eskura: www.kzgunea.eus).

3.2.- Baimenak: ondorengo baldintzak kontsultatzeko baimena eman ahal izango zaio Hezkuntza Sailari eta, kasu horretan, ez dira egiaztagiriak aurkeztu beharko:

* Identitatea (NANa, NIE, beste batzuk).
* Delitu sexualak (Urtarrilaren 15eko 1/1996 lege organikoaren 13.5. art.).
* Euskaratik salbuestea: Euskal Herriko Unibertsitatearen, Mondragon Unibertsitatearen eta Deustuko Unibertsitatearen titulazioak, apirilaren 3ko 47/2012 dekretuaren 2. eta 5. artikuluetan ezarritako baldintzak betetzen badituzte (Dekretu hori euskaraz egindako ikasketa ofizialak ezagutzeari eta euskarazko hizkuntz titulu eta ziurtagiriekin egiaztatzetik salbuesteari buruzkoa da).

Aurreko baldintzak kontsultatzeko baimena eman ezean, egiaztatzeko behar den dokumentazioa aurkeztu beharko da; horretarako, eskaeraren frogagiriaren kopia batekin batera aurkeztuko da dokumentazioa, Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzari zuzenduta, honako tokietan:

- Herritarrentzako zerbitzuko Zuzenean bulegoetan:
  - Zuzenean Bizkaian (Kale Nagusia 85, 48011 Bilbo)
  - Zuzenean Gipuzkoan (Andia 13, 2003 Donostia)
  - Zuzenean Araban (Ramiro Maeztu 10 behea, 01008 Vitoria-Gasteiz)
- edo urriaren 1eko 39/2015 legeak, Administrazio Publikoetako Administrazio Prozedura Erkidearenak, 16.4 artikuluan adierazitako gainontzeko tokietan, lege horren laugarren xedapen iragankorrean zehaztutakoaren kalterik gabe.

Entregatu beharreko dokumentazioak jatorrizkoa edo kopia konpultsatua izan beharko du, NANa izan ezik, fotokopia sinplearekin nahiko izango baita.

ZERRENDEN ORDENA

Zerrenda hau osatzen duten pertsonak alfabetikoki, izen-deituren arabera, ordenatuko dira, “V” letratik hasita, Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2018ko otsailaren 19ko ebazpenak, 2018/2019ko ikasturtean ordezkapenak egiteko ordezkogaiak kudeatzeko prozesuan, baita ikasturte horretan zehar dei daitekeen beste edozein aukeratze-prozesutan ere, alfabeto-ordena zehaztuko duen letra erabakitzeko zozketaren emaitza argitara ematen duenak, xedatutakoaren arabera.

Zerrendak irekitzeko deialdi honetan behin betikoz onartuak diren pertsonek parte hartuko dute, deialdi hau ebatzi ondoren, aurrera eramango den lehen birbarematze-prozesuan parte.

ZERRENDEN ARGITARAPENA

Onartutakoen eta kanpoan utzitakoen behin-behineko eta behin betiko ebazpena argitara emango da:

- www.irakasle.eus orrian / Irakaslegunea / “Administrazio-izapideak” eta “Zerrenda-irekiera” / “Zerrenda-Irekitze Berriak” – “Eskaera-aldi itxia dutenak (Prozesuaren segimendua)” estekan klik eginez.
- www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/hezkuntza-saila/ orrian / LAN-ARLOAK -> Langileak -> Hornikuntza-Irakasleak -> Ordezkapenetarako izangaiak -> Aparteko zerrendak irekitzea -> Zerrendak irekitzea -> 2019-02-15eko deialdia, eta www.irakasle.eus estekan klik eginez.